# HIRI-HAZKUNDE FORMAK

5. PRAKTIKA

5. praktika taldeka izango da, eta aurreko praktikaren herri berdinean (Urola-Kostakoek Zumaian egin dezakete).

Hiria **bakarrik** ikertuko dugu **1960tik gaur egun arte**.

Hurrengo planoa eman behar da:

| | NOLA EGIN | ZER EGIN |
|---|---|---|
| PLANOA | - Eskala: **1:2.000**<br>- Tamaina: **A-1**<br>- Formatoak: **CD**an (PDF, 300 d.p.i.) eta **Paperean** | - Hiri-hazkunde forma bakoitza detektatu kolore baten bidez (eraikinak soilik)<br>- Espazio ez eraikien artean publikoak eta pribatuak bereiztu<br>- Eraikin publikoak bereiztu haien behe-oinplanoa adieraziz |

Hurrengo hazkunde-formak bereiztu behar dira (egotekotan):

| HAZKUNDE-FORMAK | KOLOREAK |
|---|---|
| - 1960 inguruan Plan Partzial moduan garatutako lehen etxebizitza-poligonoak (ganorazko urbanizazioarekin)<br>- 1960-1975 *garapenkeri-garai*ko etxebizitza-poligonoak (dentsitate handikoak, ganorazko urbanizaziorik gabekoak)<br>- Urbanizazio marjinala (erdigunearekiko jarraitutasun arazoekin)<br>- Plangintza garaikideko ereduak (1975-2008) | Gorri ezberdinak |
| - 1960tik gaur egun arteko industria | Morea |
| - Jarduera berrietarako eremuak (hipermerkatuak, parke teknologikoak, eta abar) | Urdina |

EMATE-DATA: Otsailaren 26an eta 27an, taldearen arabera.